



## Leitzaren atzetik, Aresoko eta Lizartzako inauteriak

VILLABONA ▶

### 'Artea' antzezlanaren gaur Gurea aretoan

Txalo Produkzioaren eskutik, 22:30ean ▶ 5

**EGITARAUA** ▶ Gaurtik igandera Areson eta bihartik datorren asteburura bitarte Lizartzan

**UMEEN EGUNA** ▶ Arratsaldean eskolatik atera eta ibilbidea egingen dute Aresoko gaztetxoek ▶ 4

**RUPER ORDORIKA** ▶ ABESLARIA

«Gustura nago disko berri honekin, baina oso nekagarria izan da»

'Memoriaren mapan' aurkeztuko du gaur Leidor aretoan, 20:00etan ▶ 3




TOLOSA ▶

### 12. Zuhaitz Eguneko Azoka Berezia bihar

Triangulo plazan 20 mintegi egongo dira landare ugarirekin ▶ 2

Zuhaitzaren azoka, iaz. I. GARCIA



Elbarrena Industrialdea

Tel.: 943 888 232 Zaldibia

Ordutegia: Astelehenetik larunbatara

10:00-13:00

16:00-20:00

[www.jaiakdenda.com](http://www.jaiakdenda.com)



Gipuzkoako mozorro dendarik handiena

GIZARTEA ▶

# San Blas Egunarekin batera, lehenengo Azoka Berezia bihar

XII. Zuhaitz Eguna Triangulo plazan izango da; guztira, 20 mintegi egongo dira era guztietako landare eta zuhatzekin

IÑIGO TERRADILLOS

Ugariak dira Tolosan urtean zehar antolatzen diren Azoka Berezia, asteroko merkatuak ahaztu gabe, izan ere, larunbatero tradizio handiko azoka egiten da Zerkausian: produktu naturaleko azoka, garaian garaiko produktuekin, barazetik zuzenean ekarritakoak, erosleek eta saltzaileen arteko harreman zuzenarekin. Bada, biharkoa izango da urteko lehenbiziko Azoka Berezia, zuhaitzarena, hain zuzen ere.

Aurtengoan, San Blas Eguna iristearekin batera etorriko zaigu urteko lehenbizikoa. Hala, bihar goizean goizetik Triangulo plaza zuhaitzez, zuhaixkaz eta bestelako landarez beteko zaigu, XII. Zuhaitz Egunean. Bertan, ez dute hutsik egingo urteroko mintegiek, eta mintegi berriak ere



luz, San Frantzisko ibilbidean egin zuten Azoka Berezia. I. GARCIA

izango dira, «jendearen nahia asetzeko prest». Guztira, 20 mintegi izango dira era guztietako produktuak ekarriz: fruta arbolak, baso landareak, landare usaingarriak, bonsaiak... Denetarik izango da, bai ikusteko, bai erosteko, bai eta landare eta zuhaitzez ikasteko aukera ere.

## Aipamen berezia

Urtero etortzen direnez gain, mintegi berriak ere izango dira aurtengoan, baina Udalaren ustetan, «aipamen berezia mezezi dutenak larunbatero Atadi kalean egoten diren mintegiak dira»: Agirretxe mintegia (Donostia), Arakama mintegia (Zegama), Dorronsoro mintegia (Ataun), Garitonaandia mintegia (Zaldibar), Lasa mintegia (Albiztur), Mendia mintegia (Beasain) eta Urkizu mintegia (Anoeta). Biharkoan, mintegi hauek ere Zuhaitz Eguneko Azoka Berezian izango dira, baina, beraien betiko lekua utziko dute eta Triangulo plazan jarriko dira gainerakoekin batera.

Biharko eguna landare eta zuhaitz mota ugari ikusi eta erosteko aproposa izateaz gain, haiei buruzko zehaztasunak galdetzeko ere egokia izaten da. Izan ere, gustura erantzuten diete mintegietako arduradunek bertaratuakoen kezkei eta galderei.

AHT ▶

## AHT Gelditu! Elkarlana Iñaki De Juanarekin

Aste honetan zehar hainbat jardunaldi antolatu ditu AHT Gelditu! Elkarlanak Kultur Etxean. Askatasunak deituri Iñaki De Juanaren aldeko ekitaldiarekin bat eginez minutu bateko isilunea egingo dute gaur 19:30ean izango den *AHTrik ez! Gelditzea badago* proiektzio eta tertulian.

GIZARTEA ▶

## Konpartsen Lehiaketan izen-ematea

Udalak antolatzen duen Inauterietako Karroza eta Konpartsen Lehiaketan izena emateko gaur izango da azken eguna. Aranburu jauregian, udaletxean edota [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net) web orrian eskuratu ahalko da izen emateko orria, eta Aranburu entregatu datu guztiak beteta.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423  
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003  
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134  
▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegjeta.** Medikua: 653329  
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720  
▶ **Leiza.** Osasun z.: 948 510800  
▶ **Orendain.** Medikua: 655595  
▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**  
▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111  
▶ San Esteban: 006800  
▶ Gernikako arbola: 006900  
▶ Amarozko dispen.: 672637  
▶ Asunzio klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536  
▶ **Gurutze Gorria:** 674888  
▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970  
▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

### Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02  
▶ Donostiako autobusa: 361740  
▶ Tolosaldea bus: 650621  
▶ Leitzaran autob.: 948 221015  
▶ Taxia: 670420  
▶ Taxia (Leiza): 608 873016

### Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820  
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858  
▶ Tolargi: 650016  
▶ Iurrumendi egoitza: 670325  
▶ Tolosa gasa: 675320

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

## AHT gelditzea badago!

Kapitalismoak makroproiektuak behar ditu. Abiadura Handiko Trenak plataforma logistikoak, autobide gehiago, superportuak, errauste plantak, zentral termikoak edo nuklearrak... behar dituzte kapitalistek lapurretan jarrai dezaten. Eta egungo agintarien helburua, hazkunde ekonomikoaren, lehiakortasunaren, aurrerakuntzaren, modernotasunaren eta iraunkortasunaren izenean, europako multinazionalen merkatu kapitalista hau bultzatzea da. Aldiz, guztiz beste aldean gauden langileen, ikasleen, baseritarren, dendariaren... herritarrehearen gehiengo handia garenon bizi baldintzak txarrera egingo dute.

AHT Abiadura Handiko Trenaren egitasmoa obra faraonikoa da, bere eraginak, aurrekontu eta dimentsioak adierazten duten bezala. Euskal Autonomia Erkidegoan *euskal*

Y bezala ezagutzen den AHT proiektuaren 194 kilometro egingo litzuzken obrak hasi dituzte. 6.000 milio euro baino gehiago xahutuko dituzte herritarren benetako beharretarako baliabide ekonomiko hauek erabili beharrean. Pentasatu herrietako naturan AHTk eragingo duen txikizioan. Bertako ekonomian, nekazaritzan, lurraldearen orekan ere... kalte larriak eragingo litzuzke. Uste dugu, ezinbestean garapenak ez duela ezberdintasuna areagotu behar eta ingurumenaren mugak errespetatu behar dituela. AHTren aldekoek diote milaka kamioi eta auto errepideetatik aterako dituztela eta hori guztiz gezurra da. Gero eta zirkulazio handiagoa dago eta garraio gehiago egiten dituzte. Uste dugu ordea, garraioaren eskaerari mugak jarri behar zaizkiola.

AHTren aldeko erabakia demokratikoa dela diote, baina ez da. Dena herriarentzat, baina herria kontuan hartu gabe. Horixe da. Informazioa zabaldu baino, publizitate kanpainak

egiten dituzte. «Esan bay AHTari» zioen batek, baina non esan daiteke bai? Ala ez? Informazioa, eztabaida eta erabakia ukatzen dizkiote herriari, eta propagandak ezkatutu ezin duen AHTren inposizioan temetzen dira.

Guztiagatik, Euskal Herria Sozialista aldiakariak AHTren aurkako antolakuntza eta borroka iraultzaileerako deia egiten du. AHT kapitalisten proiektua da, kapitalismoaren beste ondorio bat. Horregatik, uste dugu, AHTren kontrako oposizioa, kapitalismoaren aurkako eta sozialismoaren aldeko borroka eragin behar dela. Kapitalismoarekin bukatu ezear horrelako edo antzeko proiektu eta interesak eguneroko amesgaizto izango dira Euskal Herriko gehiengoaren baldintza sozialek okerrera eginaz. AHTren aurkako borrokan pauso garrantzitsua litzateke larunbat honetako bezalako mobilizazioez gain langile klasearen borroka metodo eraginkorrena praktikan jartzea: paroak eta grebak.

AHTren aurka dauden sindikatuek oinarriko lana lukete hemen. Emaitzak txarrak izango al lirateke? Ez al luke Euskal Herriko langile eta gazteen kontzientzia eragin garrantzitsua izango etorkizuneko borroketarako AHTren aurkako eta kapitalismoaren sortzen duen zapalkuntza sozialaren aurkako deialdi batek? Baietz uste dugu, nola da ba posible bestela kapitalismoaren aurka egitea? Institutu, unibertsitate eta sektore kaltetuenetan hasi liteke borroka hau indarren arabera aurrera jarraituz. Datoren asteetan Euskal Herria Sozialistak proposamen konkretuak egingo ditu borroka honen inguruan.

Hortaz, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak deituta bihar, Tolosako Triangulo plazatik 12:30ean egingo manifestazioan ahalik eta jende gehien biltzeko deiarekin bat egiten dugu.

IKER OTERMIN ETA MANU  
ODRIOZOLA EUSKAL HERRIA  
SOZIALISTA ALDIKARIAREN  
IZENEAN ▶ ANOETA

ZIZURKIL ▶

**Euskararen erabilera datuen aurkezpena**

Euskararen erabileraren neurketa egin dute Zizurkil- en, eta emaitzak datorren asteazkenean aurkeztuko dituzte 19:30ean Atxulondon. Beraz, Udalak bidalitako gonbidapenetan akats bat zegoen, aurkezpena gaur izango zela ipintzen baitzuen.

TOLOSA ▶

**Kalderero eta Inauteri kontzertua, etzi**

Etzi, 11.30ean, urteroko Kalderero eta Inauteri kontzertua izango da Iurramendi egoitian. Bertan ariko dira Udai Txistulari Banda eta Tolosako Musika Banda.

TOLOSA ▶

**Musika Bandan aritutakoei omendaldia**

Tolosako Musika Bandak bere kide ohiak gonbidatu nahi ditu Inauteri kontzertuan parte zuzena hartzera. Hau, datorren igandean izango da, hilaren 11n, 12:15ean, Berdura plazan. Horrela, Bandan egin zuten lana errokonozitu nahi dute publikoki. Bestalde, kontzertua prestatzeko entseguak egingo dituzte asteartean eta ostegunean, Musika Eskolan, 20:15ean.

IBARRA ▶

**Bilboko manifestaziorako autobusa**

Bihar Bilbon izango den manifestaziorako autobusa 15:00etan aterako da Kultur Etxetik.

RUPER ORDORIKA ▶ MUSIKARIA

«Gustura nago diskoarekin baina nekagarria izan da»

Ruper Ordorika 'Memoriaren mapan' bere azken diskoa aurkezten izango da gaur, Leidorren 20:00etan

ESTI EZEIZA

Sarrionandiaren hitzak lagun hartuta, *Memoriaren mapan* banakako disko akustikoa gitarra baten laguntzarekin grabatu du Ruper Ordorikak. Hala, bere azken lan hau aurkezten izango da gaur oñatiarra, Leidor antzokian, 20:00etatik aurrera.

**Abenduan hasi zinen disko berria aurkezten, zer nolako harrera izan du orainoz?**

Oso ona. Ikasbide bat da hau, eta kasu honetan gehiago, niretzat ere berria baita, baina oso harrera ona ari da izaten, eta pozik nago.

**Lehendabiziko aldiz akustiko bat egin duzu, zergatik orain?**

Aspaldian neukan gogoan horrelako zerbait egitea. Eta kontuan hartuta, disko guztia Joseba Sarrionandiaren testuen gainean landu dudala, batera etorri zitzaidan bere testuekin osatzeko ideia, eta gainera bakarka egitearena. Gerora sartu nituen zenbait musikari, baina ia bakarlari baten diskoa da. Horrek aurrekoetatik desberdintzen du, besteetan, talde lanean aritu bainaiz.

**Zer moduzko esperientzia izan da bakarka aritze hori?**

Oso lasai geratu naiz diskoarekin, baina nekagarria izan da. Hasteko, aurreko diskoetan pilatutako esperientziak balio izan du, baina azken finean, bakarka aritzeak oso leku zailean jartzen du epaia.

**Sortze prozesu hori ospakizun bat izan dela alpatu izan duzu.**

Joseba Sarrionandia idazle handia da, baina esan gabe doa bere pertsonaiak badaukala beste ohiartzun bat ere bere bizitzaren egikeragatik.



HITZA

SARRIONANDIA

«Idazle handia da; gure adiskidetzat zaharra eta bere testuek sortzen didaten ohiartzuna ospatzen dut diskoan»

AKUSTIKOIA

«Aspaldian neukan gogoan horrelako zerbait egitea; gustura geratu naiz baina nekeza izan da»

Horregatik, galdera asko datoz alde horretatik. Nik hasieratik kantatu izan ditut bere testuak, eta baita beste idazle batzuek ere. Bizitzak oso bide ezberdinetatik eraman bagaitu ere, nik beti jarraitu diot kantatuak egiteari bere testuekin. Baina kasu honetan, ez dira liburuetatik ateratakoak. Askatasun handia izan dut eta neure alorrera ekarri ditut. Horregatik esaten dut kantu disko bat dela eta ez poema kantatuak. Hala, nire ustez, disko honetan hori ospatu nahi dut, gure adiskidetasun zahar hori eta bere testuek sortzen duten ohiartzuna nigan.

**Zergatik aukeratu dituzu Sarrionandiarenak, eta ez beste batenak?**

Poema onak hemen eta han bada, baina nik beti identifikazio bat behar dut, edo barruan ohiartzun hori sentitzea.

**'Memoriaren mapan'. Zer esan nahi du?**

*Hondartza galduan* izeneko kantuan ageri den esamolde bat da. Dena den, nik ez dut ikusten memoria, oroitzapen bezala, kronika edo memorandium bat bezala baino. Egunean egunean gertatutako gauzak bezala. Bestetik, maparenak irakurketa asko ditu, baina diskoa entzunez gero, berehala

ohartzun zara hainbat toki agertzen direla, pertsonaiak behin ere ez daude geldirik, berezkoa ez duten lekuan bizi dira... Eta hau bai bada konstante bat Sarrionandiaren literatura orohar. Eta horregatik, esamolde honek ondo biltzen du diskoaren barruan dagoena. Ahal den neurrian behintzat, oso gai zabalak irekitzen baitira.

**Jolasak toki berezia du disko honetan.**

Hori ez da nire gauza, idazlearen baizik. Nire ustez, Sarrionen beste konstanteetako bat da, beti ere, kontatzen duenaren atzean beste gauza bat dagoela. Jolasa maite du, umorea ere bai bere modura, eta hori dena hor dagoela iruditzen zait. Literaturaren pribilegio bat da, itxura bat izan eta esanahia beste bat izatea.

**Azken disko hau berriro ere Elkar disketxearekin grabatu duzu.**

Musikariek ez dugu harreman erraza izaten disketxeekin. Metak-en itxierak hona ekarri nau, eta aldaketa guztiek izaten dute bere alde traumatikoa, baina bestetik nahiko askatasun ere izan dut.

**Zein da sekretua 30 urte eta gero ere musika egiten jarraitzeko?**

Ez dakit. Hau da nire pasioa eta nik uste dut neure hariari tiraka ibiltzen naizela. Hasieran esan dizut ikasbide bat dela musika, eta hala da, poliki-poliki joan behar da, eta ez dut uste ezer egin dudunik, ez bada, beti aurrera joan nahi izatea.

**Egun, zer da zallagoa disko bat atara eta ezagun egitea, edo entzulegoaren lehialtasuna mantentzea?**

Gaur egun grabatzea ez da baxterez zaila, edozeinek egin dezake, eta merkatua lehortzer dago horrenbeste grabaziorenkin eta musikarekin. Musikaren garrantzia aldatzen ari da. Norbere esparrua eta espazioa bilatzea da zaila. Ozizioa ezagututa, eta neurri batean behintzat, barrura begiratzea besterik ez dago. Eta nik uste, horrela beti egongo direla entzuleak.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

INAUTERIAK ▶

# Leitzakoen ondotik, Areson eta Lizartzan asteburuan hasiko dira inauteriak

Areson inauteriak asteburu honetan soilik ospatuko dituzten arren, Lizartzako inauteriekin ez da gauza bera gertatzen, bi asteburutako iraupena izaten baitute



2006. urteko Aresoko inauterietan, eskean. J. ASTIBIA

## NAIARA GARZIA

Leitzako ihoteak izan dira bai-laran goiztiarrenak, eta hauen ondotik asteburu honetan Aresoko eta Lizartzakoen txanda izanen da. Lizartzakoak bihar

hasiko diren arren, bi asteburuetan ospatuko dituzte.

Areson, gaur bertan, arratsaldeko 15:00etan eskolatik atera eta herrian buelta bat eginen dute. Ondoren jolas bat antolatu dute txikientzat, Altxo-

rraren bila delakoa eta amaitzeko, umeentzako txokolatada izanen da.

Berez bihar hasten diren arren, gaur bertan herritarrek inauteriei ongi etorria eginen diete, 21:30ean afaria eginen

baitute. Bihar, berriz, 09:00etan gosaldun ondoren, 10:00etan baserrietara abiatuko dira, eskera. 15:30ean bazkaldun eta gero arratsaldean musika izanen da plazan, 18:00-19:00ak aldera eta 21:30ak arte. Ordu honetan Pake-Toki elkartean bilduko dira herritarrak, afaltzeko. Afaldun ondoren trikitilarien eskutik musika izanen da goizaldera arte.

Etzi ere antzeko ekitaldiak izanen dituzte herrian: 09:30ean gosaria, 10:00etan eskea, 14:30ean bazkaria eta 19:00etan musika izanen da plazan, Jaione eta Jonen eskutik.

## Lizartzako inauteriak

Lizartzan, berriz, bi asteburu-tan zehar ospatzen dituzte inauteriak garai bateko usadioa jarraituz. Lehen txekorra hiltzen zuten inauteri guztietan jakia izateko. Txekorraren haragia hil berrian oso gogorra denez, astebete itxaroten zuten

hau jateko eta horrexegatik bi asteburu ospatzen zuten. Malentxu Arrospeidek, antolatzaleetako batek, horrela azaldu du. «Duela 14 urte inauteriak berreskuratu genituen gauza bera egiten hasi ginen. Plazan bertan txekorra hiltzen genuen, baina azkeneko urteetan ez dugu hiltzen. Orain txekorra plazara jaisten dugu eta honen inguruan antzerkia egiten dugu. Bertan inauterietako agintariek gazteei txekorra hiltzeko baimena ematen diete. Baina txekorra hiltzen ez dugunez, beste gibel bat ekartzen dugu». Beraz, txekorraren erri-tua eta inauterien iraupena erabat loturik daude. «Lehenengo asteburu txekorraren ingurukoak izaten zen, eta bigarrengoan, inauteriak ospatzen ziren».

Honetaz gain, Lizartzako inauterietan bada beste berezitasunik, Malentxu Arrospeidek esan duen bezala. «Inauteri Dantzak herriko ohiturarik berezianak dira. Ez dakigu noiztik datozen. Urte mordo batean frankismoa zela eta geldituta egon ziren arren, gero berreskuratu egin genituen. Dantzak hauek hemen sortuak dira, inauterietarako, bereziki».

Azkenik, Lizartzako inauteriei amaiera emateko ijitoa erretzen dute igandean. «Tolosa inguruan herri bakoitzak bere izen goitiaz dauka. Adibidez, Lizartzakoak ijitoak gara. Eta horrexegatik, inauteriak berreskuratu genituen ijitoa erretzea erabaki genuen». Inauteriak gaur hasi eta hilaren 11n amaituko dituzte.

## LIZARTZAKO INAUTERIAK ▶ EGUNEZ EGUN

### OTSAILAK 3, LARUNBATA

12:00. Inauteriei hasiera emango zaie plazan udal ordezkariekin. Txekor gibela dastatuko dute.

**Ondoren.** Antzerkia eta dantza saioa egingo dute, Otsolar dantza taldearen dantzari gazteenen eskutik.

### OTSAILAK 9, OSTIRALA

14:15. Mozorro festa eta kalejira, eskolak antolatuta.

20:00. Otsolar dantza taldearen emanaldia, Aztinondo pilotalekuan.

### OTSAILAK 10, LARUNBATA

07:00. Kalejira plazatik abiatuko da, dantzari, txanxo eta txistulariekin.

07:30. Puske-biltze irteera, dantzari eta txanxoekin.

09:30. Etxe-zahar baserrian gosaltzeko geldialdia.

12:00. Mozorro, karroza eta



Lizartzako inauteriak, 2005. I.T.

txarangen irteera. Denak elkarrekin Errota ataririk aterako dira.

13:30. Kalejira Arrateko zubitik abiatuta.

18:00. Gurdy eta mozorroak Jose Mariko aparkalekuan bilduko dira kalejiran jeisteko.

▶ Sagardo eta talo dastaketa egingo dute.

21:00. Koadrilen arteko afaria egingo dute Aztinondo sagardotegian.

### OTSAILAK 11, IGANDEA

11:00. Meza Nagusia bistulari eta dantzariekin. Bidean Agintari doina joko dute.

12:00. Dantzariak puska biltzen ibiliko dira.

▶ Gurdyak eta mozorroak ere bertan ibiliko dira.

13:00. Lizartzako Inauteri Dantzak ikusgai herriko plazan.

14:00. Inauteri bazkaria herriko pilotalekuan.

**Ondoren.** Txaranga, jokuak...

20:30. Plazan ijitoa errez amaituko dira inauteriak.

dantza  
ikuskitzuna  
**LIZARTZAN**

**Otsailak 9, Ostirala**  
20:00etan

---

**OTSOLAR dantza taldearen emanaldia**

---

**Lizartzako Aztinondo pilotalekuan**

VILLABONA ▶ KULTURA



Gaur Gurean izango diren aktore euskaldunak. Eskuinean, Yasmina Reza zuzendaria. HITZA

# Gurea zineman 'Artea' antzezlan, gaur

Tolerantzia eta adeitasuna areagotu behar dela bultzatzen duen obra da

ERREDAKZIOA

Villabonako Gurea zineman *Artea* antzezlan izango da gaur. Honetan Ramon Agirre, Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza aktore ezagunek hartzen dute parte. 22:30ean hasiko da saioa.

Villabonako kultura batzordeak antolatu du Txalo produkzioak enpresak bideratutako *Artea* antzerkia. Idazlea, berriz, Parisen jaiotako Yasmina Reza da.

1998an estreinatu zenetik 35 hizkuntzetera itzuli dute lan hau. Eskualdean bertan Leidorren ikusteko aukera izan zen

irailean ere. Obra honek minimalismoa erabili du zentzu askotan: esaterako, apaingarririk ez dago eskenatokian. Denboraz ere, piska bat laburtu dute, izan ere, gaztelarazko bertsiotak 25 minutu gehiago irauten du. Euskarazko bertsiotak, gaurkoa, alegia, ordu eta 20 minutuko izango da.

Funtsean, tolerantzia

Obra honetan zuriz dagoen margolan bat egoera sozial desberdinetako hiru lagun arteko eztabaidagai bihurtuko da, eta hauek arte garaikideari buruz ariko dira.

Guztiak laguntasunari, maila ertainari eta gaur egungo gizarteari buruzko hausnarketa batean bukatuko du. Azken finean, jendea toleranteagoa eta adeitsuagoa izan behar dela erakutsiz.

Yasmina Reza frantziarraren obra honek hainbat sari jaso ditu. 1994. urtean idatzi zuen baina 1998. urtean estreinatu zen. Orduetik 30 herrialdetan aurkeztu izan da. Obra handia, beraz, gaur, Villabonako Gurea zineman, aktore euskaldun handiekin batera.

ALEGIA ▶

## Elolari eta Lopezi laguntzeko festa

Bihar Alegiko gaztetxeok jai berezi bat egingo dute Gaztetxean, herriko Eneko Elola eta Haritz Lopez atxilotu zituzteneko fidantza ordaintzeko asmoz. Bazkaria (20 euro), herriko bertsolariak, manifestazioa eta zahagi ardoa izango dira. Skamatxin eta Izeba Pilarren ilobak taldeen (5 euro) kontzertuak ere izango dira 22:30etik aurrera. Bukatzeko, DJ Bull ariko da.

ALEGIA ▶

## Lehenengo hiruen artean da Intxurre

Lurraldeko mutilek futboleko Urnietakoan aurka 4-1 galdu arren, saikapean bigarren izatearekin igoera fasea jokatu dute. Berdin gertatuko da neskekin: bigarren bukatu dute aurrekoan 10-1 Idiazabal taldea garaitu ostean. Kadeteak igoera fasean daude eta 5-3 irabazi zuten lehenengoan Behobiaren aurka. Asteburu honetan kadeteek bakarrik jokatu dute, Lazkaoren kontra. Hauek bihar jokatu dute 11:00etan Lazkaon bertan. Lurraldekoak eta neskek atsedena izango dute asteburu honetan.

PILOTA ▶

## Aurrera-Saiatz eta Berria Txapelketan izango da

N. URBIZU

Aurrera-Saiatz pilota eskolakoak etzi ariko dira IV Berria Pilota Txapelketan. Ortuellako Danok lagunak pilota eskolako bikoteen aurka aritu beharko dira, han bertan, Ortuellan 11:00etatik aurrera.

Aurrera-Saiatz pilota eskolako kadeteak Urbietako Zinkunegi izango dira; jubenilak, berriz, NARBATE-TELLETXEA, eta senior mailan RENOBLES eta E. GALARRAGA.

Bestalde, Udaberri Txapelketan 5 partidetatik senior mailako biak irabazi dituzte. Ibarran jokatu dute gaur 20:00etan. Euskadiko Klub Txapelketan, berriz, lautik hiru irabazi dituzte: 22 urtez azpiko banakakoa 22-9 galdu zuen Mujikak.

Zazpi-Isturri indartsu

Zazpi-Isturrikoek Udaberri Txapelketan bat galdu eta beste irabazi egin dituzte. Euskal Herriko Txapelketan emaitza ezin hobekoa lortu dituzte, lautik laurak irabazita. Ohorezko mailan ere oso ongi ibili dira, jokatu beharreko 2 partidak irabazita baitituzte. Emaitza hauetatik Euskadiko Euskal Pilota Federazioak zoriandu du pilota eskola.

Villabona - Kultura

TXALO teatroa "artea"

Otsailak 2  
Ostirala

GAUEKO 22:30ean  
GUREA ARETOAN

ANTZERKIA

Udal Kultura Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia  
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

0-16 urte

uzturpe

ikastetxe bat baino gehiago

haurren eskola  
ludoteka  
ikastola

otsailaren 6an  
Ateak Zabalik Haurren Eskolan  
dei lezabuztu eta biziya antolatuko dugu

Igarabi 2, 20002 Beraio | Tel. 945017099 | Fax 945017032 | e postu: berak@kultura.net

## EDU MURUAMENDIARAZ ▶ DANTZARIA

MADDI SOROA

14 urterekin hasi zen Edu Muruamendiaren (Bergara, 1964) dantzatzen. Harrezkero Euskal Herriko dantza txapelketetako hamaika titulu eskuratu ditu. Aukeran dantza konpainia sortu eta zuzendu du eta irakasle lanetan dihardu, besteak beste, Alurr dantza eskolan. Gaur 22:00etan Ibarrako kiroldegian *Bideak* ikuskizuna eskainiko du Aukeran-ekin. Ibarran dantzatzeko duen azken aldia izango dela aitortu du.

**'Bideak' ikuskizunera doanak zer aurkituko du?**

Aukeran-ek egiten dugun hiru-garren ikuskizuna da. Hamar urte daramatzagu konpainiarekin eta *Bideak*, bide horren gailurra litzateke. Euskal dantza tradizionala eta garaikidea uztartzen ditugu koreografia elementu ezberdinak sartuz, zintak esaterako. Bizitzak dituen bide ezberdinak isladatzen ditu ikuskizunak, oso ikusgarria da.

**Ibarran dantzatzeko duzu gaur, gogoz zaude?**

Oso berezia da niretzat gaurko saioa ia zazpi urte baitaramatzat Ibarran lanean eta gaur hemen dantzatzeko poz handia ematen dit jende ezaguna egongo baita. Gainera, ziaraski Ibarran dantzatzeko dudak azken aldia izango da. Jendea etortzea espero dut, ikuskizun ezberdina egitea lortu baitugu. **Uztailaren 13an izan zen estreinaldia kursaalen. Nola gogoratzen dituzu une haiek?** Kursoaleko saioa sekulakoa izan zen. Ez genuen inondik inora pentsatzen hainbeste jende joango zenik, baina sarriera guztiak saldu ziren. Haietariko asko gure ezagunak ziren eta benetan jendeak gustuko zuen ala ez jakiteko beste ikuskizunak egin nahi genituen. Gaur arte Tolosan, Bergara-

ran edota Azpeitian esaterako toperaino bete da antzokia eta horrek jendeari gustatu zaiola adierazten du. Azpeitian, publikoaren saria eskuratu genuen eta oso pozik gaude.

**Ekainean 10 urte beteko ditu Aukeranek. Balorazioa?**

Kasualitate hutsez lau lagun dantzan hasi ginen. 2001. urtean gure lehen ikuskizuna *Sutargi* sortu genuen eta konturatu ginen arrakasta izan zuela, bazela egiten genuen dantza gustuko zuen jendea. 10 urteko lanaren emaitza zein den ikusita oso balorazio ona egiten dut, oso gustura gaude.

**Dantza tradizionalako arauak desegituratu eta dantza garaikidea egiten duzue. Dantzari bihurriak al zarete?**

Dantza munduan beste bide bat aukeratzea erabaki genuen garai berrietara egokituz eta horregatik gogor kritikatu gintuzten, baita presio handia jasan ere. Guk, ordea, arin-arina eta fandango tradizionalaz haratago joan nahi genuen eta horregatik, oinarria aldatu gabe dantza garaikidearekin fusioa egin dugu. Kanpoan arrakasta izan behar omen da etxean ere arrakastatsua eta onartua izateko; horregatik, lan handia egin behar izan dugu eta askotan ez da aintzat hartu.

**Ez omen da inor Aukeran bezainbeste ausartu?**

Onerako edo txarrerako guk beste bide batetik abiatzeko erabakia hartu genuen. Hasieran beltz ikusten genuen guztia baina denboraren poderioz argituz joan da. Gure dantzak hor daude eta hor egon behar du-

# «Dantzak asko eman dit eta nik asko eman diot dantzari»

Ibarran dantzatzeko duen azken aldia izango da Edu Muruamendiaren, hemendik gutxira eskenatokitik dantzatzeari utziko diola aitortu baitu



MADDI SOROA

**'BIDEAK'**

«Euskal dantza tradizionala eta garaikidea uztartzen ditugu koreografia elementu ezberdinekin»

**ETORKIZUNA**

«Geroz eta gertuago ikusten dut eskenatokitik dantzatzeari utzeko garaia»

nituen. Zera galdetzen nion, ordea, nire buruari, hau al da dena? Txapelketetaz gain, ordea, Euskal Herrian beste mundu bat bazegoela ohartu nintzen eta hori erakutsi nahi diot jendeari; Euskal Herriko dantza ez dela dantza tradizionalan amaitzen, badela fandango eta arin-arina baino gehiago, alegia.

**Etorkizunari begira, dantzan ikusten duzu zure burua?**

Geroz eta gertuago ikusten dut eskenatokitik dantzatzeari utzeko garaia. Gazteak oso indartsu eta prestatuak datoz eta dantzatzeari utzeko unea iritsi zaidala uste dut. Hala ere, dantza munduan jarraituko dut Aukeran konpainiarekin, dantza eskolak ematen...


**Ezin dugu amaitu galdere hau egin gabe. Zer da dantza zurretzat?**

Dantza dena da eta dena izan da niretzat. Familia izan nuenetik apur bat aldatu banaiz ere, dantza eta familia gauzarik garrantzitsuena dira niretzat. Dantzak asko eman dit eta nik ere dantzari asko eman didala uste dut.

tela uste dut. Oso harro gaude egiten dugunarekin eta gure ikuskizunek arrakasta dutela ikusi da. Eskolek harrobia badela erakutsi dute, baita, gure dantzak nolabaiteko erreferentzia bihurtu direla ere.

**Punta puntan egotea atzeko lan handiaren fruitua izango da, ala?**

*Bideak* ikuskizuna prestatzen esaterako bederatzi hilabete pasa genituen. Gu ez gara dantzari profesionalak, ezin baitugu soilik horretaz bizi, baina era berean profesionalak bezala egiten dugu lan. Dantza klasikoko eta garaikideko eskoletara joaten gara, astean lau aldiz-edo egiten ditugu entseguak, ikuskizuna lantzen dugu eta norberak bere prestakuntzak egiten ditu.



**Salgai (Tolosa)** lurrarmendi azoan etxe zoragarria. 2 solairu. Lorategia. Garaje itxia.

**Salgai (Anoeta)** 78m<sup>2</sup>-ko pisua. Terraza ederra.

**Salgai (Tolosa)** 50m<sup>2</sup>. Atiko ederra estreinatzeko guztiz eraberritu ostein. Aukera aparta! 191.723 euro.

**Salgai (Tolosa)** 1. go pisua alde zaharrean. 70m<sup>2</sup>. Estreinatzeko guztiz eraberritu ostein.

**Salgai (Araun)** 60m<sup>2</sup>. San martin. Pisu eraberritua estreinatzeko. Aukera aparta! 164.677 euro.

**Salgai (Etxarri-Aranatz)** Eraikuntza berriko pisua. Sustatzailetik zuzenean salmenta. Trasteleku eta garaje itxia 21,75m<sup>2</sup>-koa. 183.309 euro.

943 69 71 96 • 675 705 268  
Korreo Kalea 50

**iragarki laburrak ▶****LANA**

**Harreragileak.** Erakunde publikoetarako. 943 444866.

**Gidariak.** Erakunde publikoetarako. 943 444866.

**SALGAI**

**Autoa.** Seat Ibiza. 5 urte. 75.000 kilometro. Interesatuak deitu

665 708 208 zenbakira.

**Furgoneta.** Volkswagen Eurovan 2.5 TDI. Mahia eta ohearekin.

665 704484.

PILOTA ▶

ENERITZ MAIZ

**D**uela hiru urte hasi ziren Tolosako neska-mutilei eskupilota, erremontea, pala eta zesta-puntan jokatzeko aukera eskaintzen. Aurtengo ikasturtean aldiz, beste helburu batzuekin ekin diete harrobia lantzeko lanei.

Proiektu hau, Tolosako Udalak eskatuta atera zen aurrera, eta helburuetako bat, Tolosako pilotariak sustatu eta indartzea zen. Lehen bi urteak, arrakastatsuak izan baziren ere, frontoi bakar batean aritzeko ume gehiegi izaten zituzten eta zaila egiten zitzairen klaseak behar bezala ematea. Egoera honen aurrean, ikasturte honetarako, pilota munduan beraien lekua egina duten Mikel Beloso, Koldo Rabadan eta Xanti Aizpurua gazteak elkartu dira eta Tolosako Haur Pilota Eskola, elkarte berria sortu dute. Koldo Rabadanen esanetan «proiektu alternatibo bat aurkeztu genuen pasa den urteko udan modalitate ezberdinek indartuz, baina batez ere, eskupilota eta zesta-puntari indarra emanez; bi modalitate hauek direlako klub federatuak dituztenak, Aurrera Saiaz eta Beotibar, hurrenez hurren»; Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeekin elkarlanean jarraitzen dute eta hauen bidez egiten dituzte izen-emateak. «Harrobi lana egiteko konpromisoa hartzen dugu, Tolosako haurrak lortuz», dio Rabadanek.

Lanerako gogoz

Oraindik izena emateko aukera zabalik badago ere, jada gogor ari dira lanean; «izena eman dutenak asko dira eta mutilez gain neskek ere animatu dira eta hori poztekoa da». Hirukide Jesuitina eta Beotibar pilotalekuan ematen dituzte ordubeteko eskolak eta talde bakoitza, gehienez, hamabi haurrez osatua dago. Ez dute gehiegikeriarik nahi eta kalitateari ematen diote garrantzia; «talde txikiak izanda, askoz ere hobeto moldatzen gara klaseak ematerako orduan». Gehienbat zesta-punta eta eskupilota lantzen badituzte ere, beti tartekatzen dituzte erremontea eta pala. Materialari dagokionez, ona eta egokitua lortu dute eta taldearen kamiseta ere atera dute, haur bakoitzak berea duelarik.

Gaur egun, gauza gehienetan, zenbat eta lehenago hasi ikasten, hobea dela, pentsatzen da, eta haurrak, askoz ere hobeto ikasiko duela txiki-txikitik hasiz gero. Baina talde honen kasua ez da hau, eta pilota mundurako, pentsaera ho-



Tolosako Haur Pilota Eskolako taldea, ikasleekin eta entrenatzaileekin. HITZA

# Tolosako Haur Pilota Eskola etorkizuneko pilotariak sortzen

Erremontea, pala, zesta-punta eta eskupilotan jokatzeko aukera du 16 urte bitarteko edonork

nekin ez dute bat egiten. Talde honen ustetan, «espezializazio goiztiarrera jotzen da eta haur bat, ikasten hasten denean, askoz ere hobea da, lau modalitateak probatu, denetik ikasi eta ondoren aurrera begira, haurrari berari, zertan segitu nahi duen aukeratzen uztea». Hauek, 11-12 urterekin, nahi izanez gero, modalitate baten aldeko apustua egiteko aukera ematen diote haurrari eta orduan, elkarte federatuekin entrenatzera pasatzen dira, hau da, Aurrera Saiaz edo Beotibarrekin. Aldiz, erremontea aukeratzeko badute, Galarretara bideratzen dituzte. Eta klub federatuek, beraien eskolatik haurrak har ditzakete.

Neska-mutil hauek, gogotsu hartzen dituzte astean dituzten bi saioak eta lau modalitate izateak motibazioa pizten dietela adierazten du Koldo Rabadanek: «ikasteko duten gaitasuna handia da eta erraz hartzen dituzte modalitate bakoitzaren xehetasunak».

Bestetik, aipatu gabe utzi ezin direnak, asteburuetako partidak dira. Hauek maila ezberdinen arabera, antolatzen dituzte. Gaztetxoek gustukoena izaten dela diote Haur Pilota Eskolako irakasleek; «partiden eske hasten dira, eta asteburu guztietan jokatu nahi izaten dituzte».

Neska-mutilen ilusio eta ikasteko gogoarekin baita gurasoek jarrerarekin ere, oso gustura daude elkarteko kideak. Lanerako gogoz daude, haur gehiagoren zain. Beraz, informazio gehiago izan edo izena eman nahi duenak, bada-ki non dauden.



Erremonteko klasean harrapatu genituen Beotibarren. ENERITZ MAIZ

DATUAK ▶

MODALITATEAK

**Eskupilota eta zesta-punta.** Gehien lantzen direnak dira, Tolosan bertan klub federatuak daudelako.  
**Pala eta erremontea.** Beste bi artean tartekatzen dituzte.

ENTRENAMENDUAK

**Asteartetik ostiralera.** Arratsaldeko bostetatik zazpiak bitarte, ordubeteko saioak egiten dituzte. Haur bakoitzak astean bi saio ditu.  
▶ Asteburuetan pilota partidak jokatzeko dituzte, adinaren arabera sailkatuta.

LEKUA

**Beotibarren eta Hirukide Jesuitinetan.** Bi pilotaleku hauetan ematen dituzte klaseak.

IZEN-EMATEA

**Zabalik.** 16 urte bitarteko edonork eman ahalko du izena.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Aduna.** Asvinenean *Laburgaua: urrezko laburmetraiak* izango da, 22:30etik aurrera, 5 euroren truke.

**Anoeta.** Etzi, Santa Ageda bezperan, goiz eta arratsaldez kantari ateratzeko entseguia izango da Ikastolan 20:00etatik aurrera.

**Ikaztegieta.** Autodeterminazioa eta amnistiaren aldeko afaria egingo dute, 15 euroren truke. Ondoren, Alaitz Amundarainek brigadista bezala Venezuelaren pasatako egunen diaporama eskainiko du.

**Tolosa.** *AHTrik ez lelopean* egin diren jardunaldien baitako azken proiektzioa eta tertulia egingo dute Kultur Ebean, 19:30etik aurrera *AHTrik ez Gelditzea badago* izenarekin.

**Tolosa.** Oliba gorriak eta Anger musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

**Tolosa.** Ruper Ordorika kantautoreak kontzertua eskainiko du Leidor aretoan 20:00etan, disko berria aurkezteko.

**Tolosa.** Disko-festa izango da San Blas auzoan 18:30etik 21:00etara, auzoko jaien barruan.

**Zuzurkil.** Elizpe jubilatuta eta zentsionista elkarteak urteko asanblada egingo du 17:00etan (2. deialdia 17:30ean) zuzendaritza berri eta lehendakaria aukeratzeko. Ondoren merienda izango da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

**Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar koalea, 43. 112.

**Tolosa.** Ollarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

IRRATIA

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hirizaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).

20:00-21:00. *Asteko onena.*

21:00-22:00. *Igo bolumenena.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Etorkizuneko igerilari trebeak

**TOLOSALDEA** ▶ Joan den asteburuan Lasarten emaitza bikainak lortu dituzte 95 eta 96 urteetan jaiotako IKT taldeko igerilari gazteak



1995 eta 96 urteetan jaiotako IKTko igerilariak lan bikaina egin zuten joan den astean Lasarten. HITZA

hori erakusteko parada izan zuten gaztetxoek.

100 Bular frogan Olatz Eizemendi, Hasier Etxabarri, Jon Ander Aurkia, Julen Izeta, Unai Eraso, Iñigo Alkorta, Iñigo Areizaga aritu ziren. Euren ardura-dunen esaneta, «hasierako urduritasunak alde batera utzi eta estilo bikainarekin egin zuten frogak».

400 Libre frogara lehenengo aldiz egin zutenek ere («oso dotore» hasi eta bukatu zuten frogara luze hau. Hauek izan ziren 400ean debutari: Ane Amundarain, Maddi Dorronsoro, Laura Gabirondo, Maria Muñoz, Nerea Manso eta Ander Juarrros. Laura eta Maria gaztetxoek izan arren denbora bikainak egin zituzten Gipuzkoako sailkapenean lehenengo postuetan sailkatuz.

Elena Gabirondo, Olaia Cuadrado, Ane Manso eta Maria Manso egin zuten lanaren saria eskuratu zuten aurreko denboraldian eginko denborak asko hobetuz. Marta Alonsok berriz Gipuzkoako sailkapenean lehenengo postua lortu zuen.

Mutiletan berriz, Jorge Rodríguez, Imanol Eceiza, Julen Lizaso eta Jon Andoni Goenaga aurreko urteko denbora hobetzeko gai izan ziren «bikain planteatu zuten frogara honetan». Aipagarria izan zen, halaber, Aitor Grajalek eginko proba bikaina.

Erreleboen proban, 4x50 Libre frogan hain zuzen, neskek Gipuzkoako denborarik onena egin zuten. Lan bikaina, beraz, Tolosaldeko etorkizuneko igerilarietako eginkoak.

AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
**Inaxio.** Zorionak atzoko partez. Emazte, seme-alaben eta biloben partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Aratz Tobar (Vilabona).** Gaur urtebete. Lehengusua, Maddi eta Ugaitzen partetik muxu bat.

Urtebetez, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
 agurren tarte

ERREDAKZIOA

**D**enboraldia hasi zenetik lau hilabete igaro dira, IKTko igerilari gaztetxoek euren hobekuntzaren erakustaldi bikaina egin zuten Lasarteko igerilekuan, joan den larunbatean. 95 eta 96 urteetan jaio ziren 23 igerilari hartu zuten parte ligako jardunaldi honetan. Hauetako batzuk 100 Bular proban hartu zuten parte eta beste batzuk, berriz, 400 Libre saioan.

Igeriketa taldeko teknikariek behin eta berriz errepikatzen duten bezala, «txikitatik teknika onarekin igeri egiten lortzea da igerilari baten lehenengo betebeharra». Lan honetan Tolosaldekoek nota ona izan ohi dutela gaineratu dute eta azken txapelketan ere



**URTE ASKOAN**  
**Jose-Mari Karmen.** Urrezko ezteiak. Zorionak!



**URTE ASKOAN**  
**Joxepa Garmendia.** Zorionak eta urte askotarako.



**URTE ASKOAN**  
**Joxean Larrarte (Iruia).** Gaur 4?? urte. Zorionak eta etzi bazkari goxo-goxoa prestatu.

**Bihar**  
**1. kupoia**  
**berriarekin**

Aukera ezazu, **BIZI EUSKARAZ** berria